Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Belen Arrondo Odriozola

Bergara, Gipuzkoa (1947)



Aurkibidea

Biografia



Zubieta kalean jaioa, familia abertzale batean. Hiru senide ziren. Kontxita Maiztegiren eskolan ibili zen. Berriketa Plaza izeneko saioan hartu du parte, beste hamaika herritarrekin batera, 2024ko Euskararen Egunean. Puri Arrondo ahizpa ere elkarrizketatuta dago.

Zintak

BER-381

- **Proiektua**: Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2024-12-03
- **Iraupena**: 22 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Adin ezberdinetako 70 ikasle gela berdinean

- **Erref**: BER-381/002
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:01:21. **Bukatu**: 00:04:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Bergarako Zubieta auzoan jaio zen Belen. Oso auzo euskalduna zen. Frontoiko eskolan ikasi zuen Kontxita Maiztegirekin. Euskara eskolan debekatuta zegoen. 70 ume inguruk elkarrekin ikasten zuten, gela berdin batean. Eskolaz kanpoko klaseak ere ematen zituen Kontxitak. Hamasei urtera arte ikasi zuen Belenek.

2. Kongregazioak eta haien ekimenak

- **Erref**: BER-381/004
- **Iraupena**: 0:04:23. **Hasi**: 00:04:22. **Bukatu**: 00:08:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:
Ikasle ona zen Belen. Don Pedro Garitano Astigarraga, Santa Marinako apaizetako bat zen eta artxibo handi bat zeukan, non etorkin guztien erregistroa egiten zuen. Kongregazioan zeuden haurrek lagundu egiten zioten eskutitzak idazten eta banatzen, hileko kongregazio egunera deitzeko, antolatzen ziren zinema emanaldiak abisatzeko... Neskak ez, baina mutilak txangoak egitera eramaten zituen apaizak ere.

3. Michelle Angiolilloren exekuzioa Bergaran

- **Erref**: BER-381/006
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:08:51. **Bukatu**: 00:10:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea

Laburpena:
Amonak 6-8 urte zituela, urkatu zuten Michelle Angiolillo epaitegi atzeko palzan. Eskolatik joan ziren garro bil-ean nola hiltzen zuten ikustera. Hiltzeko momentuan "germinar" ohitukatu omen zuen Angiolillok.

4. Errosarioa euskaraz

- **Erref**: BER-381/007
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:10:19. **Bukatu**: 00:11:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolak gaztelaniaz izan arren, errosarioa euskaraz errezatzen zuten. Normalean, goizetan matematikak, historia... ikasten zituzten eta arratsaldean, etxeko laboreak egiten zituzten errosarioa errezatzen zuten bitartean. Neskek eta mutilek banatuta ikasten zuten herriko eskolan, baina akademian elkarrekin.

5. Elementalean euskarazko gau-eskolak

- **Erref**: BER-381/008
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:11:45. **Bukatu**: 00:13:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Josu Oregik euskarazko gau-eskolak ematen zituen Elementalean. Bertan alfabetatu zen Belen, bi urtez. 1970. hamarkadaka zen.

6. Dendetan euskeraz egiten zen

- **Erref**: BER-381/009
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:13:19. **Bukatu**: 00:14:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Frankismoan, lagun baten amari guardia zibilak atentzioa deitzen zion astoari euskaraz egiteagatik. Belenek etxean beti egin du euskaraz. Dendara joaten zenean, euskaraz egiten zuen ere.

7. 1960an munduaren amaiera zetorren

- **Erref**: BER-381/011
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:14:29. **Bukatu**: 00:16:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:
1960an munduaren amaiera zetorrela esaten zen.

8. Gerra aurreko Bergarako aguazila

- **Erref**: BER-381/012
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:16:19. **Bukatu**: 00:19:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Aitak, etxean euskaraz hitz egitera derrigortzen zien. Zubieta oso auzo euskalduna zen, baina kalea ez. Gerra aurretik, aita udaletxeko aguzila zen. Gernikako bonbardaketak libratu zen. Santanderrera ihes egin zuen eta preso ere egon zen. Aitari ez zitzaion gustatzen gerra garaiaz hitz egitea. Gerra ondoren lan gabe gelditu zen eta lagun baten bidez, etxerik-etxe mantenu-lanak egiteko lanpostu bat lortu zuen.

9. Bergarako "Derrepenteko Señoria"

- **Erref**: BER-381/013
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:19:37. **Bukatu**: 00:21:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Kasino zaharra zegoen etxea Ameriketara joan zen gizon batek eraiki zuen. Hura hil zenean, bere ama aberastu egin zen eta "Derrepenteko Señoria" bezala ezagutzen zen herrian. Etxea, elizari utzi zion, ustez semeak egindako bekatuak garbitzeko. Franco garaian, kasinoa izan zen eta aberatsak bakarrik joaten ziren bertara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com